



2014ko KONTU OROKORRA. GENEROAREKIN LOTUTAKO HELBURUEN JARRAIPENA

Departamentua: Ingurumena eta Lurralde Antolaketa

Programa: 010 Zerbitzu Orokorrak

2014 Aurrekonturako HELBURUAK:

1. Departamentuari esleitutako berdintasun planaren neurriak ezartzea

A) Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak. Balorazio kuantitatibo eta kualitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adier. Helburua	Adier. Betetzea	Balorazioa

B) Adierazlerik gabe planteatutako helburuak. Balorazio kualitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Betetze maila.	Balorazioa
1.1. Plana burutzeko lanen inguruko proposamen eta jarraipen bilerak koordinatzea.	Altua	
1.2. Generoaren ikuspegia kontuan hartuz Departamentuko aurrekontu programen analisia koordinatzea.	Altua	
1.3. Kontratazio prozesuetan generoaren ikuspegia jasotzea.	Altua	Aurreko ekitaldietan hasitako lanarekin jarraitzen da.
1.4. Diru laguntzak emateko prozesuetan generoaren ikuspegia jasotzea.	Altua	Aurreko ekitaldietan hasitako lanarekin jarraitzen da.
1.5. Departamentuaren komunikazio ikus-entzunezkoetan eta idatzietan genero hizkuntza berrikustea.	Altua	Aurreko ekitaldietan hasitako lanarekin jarraitzen da.
1.6. Sexuaren arabera bereizitako datuen bilketa proposatzea, beharrezkoa den tokian.	Txikia	Ez da ezagutzen daturik hartu denik.



2014ko KONTU OROKORRA. GENEROAREKIN LOTUTAKO HELBURUEN JARRAIPENA

Departamentua: Ingurumena eta Lurralde Antolaketa

Programa: 200 Pasaialdeko antolaketa eta sustapena

2014.ko aurrekontuaren helburuak:

1. Hondatutako eremuak urbanizatzea eta horiek hiri ehunean txertatzea.
2. Hiri espazio irisgarriak eratzea eta hiri mugikortasuna hobetzea.
3. Gizarte, kultura eta kirol ekipamenduak jartzea, erdialdeko eremuetan.

A) Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak. Balorazio kuantitatibo eta kualitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adier. helburua	Adier. betetzea	Balorazioa

B) Adierazlerik gabe planteatutako helburuak. Balorazio kualitatiboa

Esku artean dugun aurrekontu programaren kargura gauzatu beharreko hiri eremua biziberritzeko jarduerak emakumeentzako garrantzitsuak den hiri-ehuna hobetzen dute. Hiri eremu irisgarriak eratzeak eta hiri mugikortasuna hobetzeak eragina dute adingabeen eta adinekoen zaintzarako erabilitako denboran. Ekipamendu berriak erdigunean eratzeak eragina dauka emakumeen aisia denboran nahiz zaintza denboran, parkeak eratzeak bezalaxe. Hondatutako eremuak urbanizatzeak eta haiek hiri-ehunean sartzek puntu beltzak zuzentzeko aukera ematen dute, emakumeen segurtasunari dagokionez.

Dena den, Pasaiaiko Udalarekin sinatutako hitzarmena kontuan hartuta, aurrera eraman beharreko jarduerak gauzatzeko Foru Aldundiak eragiteko duen benetako gaitasuna oso txikia edo ia ezdeusa da, Udalaren ahalmena delako. Horregatik, zaila egiten da helburuak eta adierazleak proposatzea, geroago, betetze mailaren azterketa egiteko.

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Betetze maila	Balioespena
1.1 Molinao erreka parkea urbanizatzea.	2014rako aurreikusitakoren % 100	
2.1. Euskadi Etorbidea urbanizatzea.	2014rako aurreikusitakoren % 100	



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas

3.1. Donibaneke gizarte, kultura ea kirol eraikinaren 2. fasea. 3.2. Usozko kirol ekipamendua. 3.3. Ondartxoko diziplina anitzeko ekipamendua.	2014rako aurreikusitakoren % 100	
--	--	--



2014ko KONTU OROKORRA. GENEROAREKIN LOTUTAKO HELBURUEN JARRAIPENA

Departamentua: Ingurumena eta Lurralde Antolaketa

Programa 220: Lurraldearen antolaketa eta sustapen orokorra

2014 Aurrekonturako HELBURUAK:

1. Herrialdeko Oreak proiektua.
2. Lurraldearen azterketak eta planak.
3. Hirigintzako espedienteen digitalizazioa.
4. Datu espazialen azpiegitura mantentzea.

A) Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak. Balioespen kuantitatibo eta kualitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adier. Helburua	Adier. Betetzea	Balorazioa

B) Adierazlerik gabe planteatutako helburuak. Balioespen kualitatiboa

Edukia orotarikoa denez, hots, jendeari orokorki bideratutakoa, jardueren programan ez da finkatu ez helbururik ez adierazlerik ere, helburuak betetzearen balioespen bat egitea ahalbidetiko zukeenik.

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Betetze maila.	Balioespena
1.1. Herrialdeko Oreak proiektua.		Azpiegiturekin eta azterlanekin loturiko laguntzak eman zaizkie 41 udal eta erakunde txikiei, guztira 14.392 emakumez osaturiko populazioa dutenei; zenbateko hori, Gipuzkoako emakume-populazioaren % 3,94 da.
2.1. Lurraldearen azterketak eta planak.		Tolosaldeko lurralde plan partzialaren idazketa; bertan 23.540 emakume daude errolatuta, hots, Gipuzkoako emakume-populazioaren % 6,44.
4.1. Gipuzkoa azpiegitura geodesikoa.		Base geodesikoak sortzera bideratutako lanak; epe ertainean populazio osoari eragiten dien azpiegituren onera izango dira.
4.3. Gipuzkoako datu espazialen azpiegitura.		2015eko apiriletik aurrerako sexuaren arabera erabilera datuak ditugu, non adierazten den erabiltzaileen % 47,83 emakumeak direla; zifra hori ia bat dator Gipuzkoako populazio osatzen duen % 51,1eko emakume-populazioarekin.